# 5 Planifikazio-jarduera: Erronka planifikatzen

## 1. Zehatz-mehatz, zer ikasiko duzue unitate honetan?

a) Bakarka, adierazleak dagokien tokian ipini, unitateko atalen sarrerak eta unitateko zenbait jarduera labur aztertu ondoren.

- Antolatu Espainiako Gerra Zibilaren hainbat alderdi hainbat formatutan (diagrama digitala, grafikoak, mahai-jokoak).
- Baloratu 1919 eta 1945 bitartean geratutako giza ekintzak hainbat ikuspegitatik abiatuta.
- Inferitu Bigarren Mundu Gerraren kausak, garapena eta ezaugarriak hainbat iturritan (idatziak, argazkiak, bideoak) eta sailkatu emandako irizpideen arabera..
- Burutu ikerketa bat planifikatutako pausoei jarraituz: identifi katu galdera zuzenak, bilatu informazioa, aztertu emaitzak eta atera ondorioak hasieran identifi katutako galderari erantzuteko.
- Eztabaidatu ikerketaren emaitzak eta ikerketa-galderaren erantzun posibleak.

- Elkarlanean, planifikatu ikerketa historiko baten egin beharrekoak aplikazio digital baten bitartez.
- Identifikatu eta ondorioztatu Espainiako Gerra Zibilaren kausak, gertakizunak eta ondorioak hainbat iturritan (gehienbat prentsan).
- Baloratu Lehenengo Mundu Gerran hartutako hainbat erabaki egokiak izan ziren ala ez, eta gerrari buruz emandako zenbait informazioren sinesgarritasuna, iturrietan inferituz talde sozialen eta herrialdeen ideologiak eta helburuak.
- Identifikatu eta inferitu, hainbat iturritatik edanez (irudiak, bideoak...), Lehen Mundu Gerran parte hartu zuten bandoak, kausak eta ezaugarriak, eta sailkatu emandako irizpideen arabera.

- Azaldu digitalki irudi-iturriei buruzko azterketen ondorioak (kartelak, marrazkiak), kontuan hartuta haien fidagarritasuna, ikuspuntua, helburua eta esanahia.
- Identifikatu eta inferitu gerren arteko garaiko gertakizunen ezaugarri nagusiak..
- Azaldu okupazioari eta erresistentziari lotutako zenbait estrategia.
- Ondorioztatu Gerra Zibilari buruzko hainbat gai idatzizko iturrietan (prentsa, hitzaldiak...) eta jabetu eskainitako informazioaren fidagarritasunaz, ikuspegiaz eta adierazgarritasunaz.
- Inferitu eta aztertu Lehen Mundu Gerraren bilakaera eta ondorioak hainbat iturritan oinarrituta (irudiak, testuak, bideoak).

| | HISTORIARIKEN JOLASEAN |
|---|---|
| 1. ATALA<br>**GERRA IRUDIAK** | |
| 2. ATALA<br>**BEGIRADA ASKOTARIKOA** | |